

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Egoitza elektronikoa sortzea. Laburpena

Tokiko gobernu batzarrak, 2024ko martxoaren 15eko erabaki baten bidez, ondoko hau ebatzi du:

Lehenengoa. Aguraingo Udalaren egoitza elektronikoa sortzea. URL helbide honetan dago eskuragarri: <https://udaleneagoitza.araba.eus/agurain>. Gardentasun, publizitate, erantzukizun, kalitate, segurtasun, erabilgarritasun, irisgarritasun, neutraltasun eta elkarreragingarritasun printzipioak bete beharko ditu.

Bigarrena. Ebazpen hau Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena. Udal iragarki taulan eta ALHAOn argitaratzea.

Agurain, 2024ko martxoaren 22a

*Alkatea*

**RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR**